



ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIAK JORNADAS EUROPEAS DEL PATRIMONIO

BIZKAIIA

BURDINAREN PAISAIK ★ 2006 ★ LOS PAISAJES DEL HIERRO

Urriak 6, 7, 8 / 13, 14, 15

Europa, guztion ondarea

Seigarren urtez segidan, Bizkaia bat egingo du Europako ondarearen jardunaldiak izeneko ospakizun handiarekin. Egun gutxi batzuetan zehar, bizkaitarrek eta europarek aukera berdingabea izango dugu gure monumentuen ondare aberatsaz gozatzeko. Askotariko osagaiak dituen kultur ondarea da, baina, era berean, gu guztiona dena.

1991n hasi ziren jardunaldiak egiten, eta ordudatik gero eta estatu gehiago lotu zaizkio egitasmo honi. Iazkoan, 48 estatuk parte hartu zuten, eta horien bitartez sortutako jarduerekin 20 milioi lagunek baino gehiagok gozatu ahal izan zuten.

Aurreko urteetan bezala, Bizkaian bada jendearen arreta bereganatu nahi duen gai jakin bat, gure ondarearen alderdi nabarmen bat ukitu nahi duena. **Burdinaren paisaiak** leloa ardatz hartuta, zenbait jarduera antolatuta dituzte gure lurraldearen historian sakon errotuta dagoen alderdi bat gogora ekartzeko asmoz, alegia: burdin minerala. Eta gogorazte ariketa hori hainbat ikuspegitik egin nahi dute: meatzaritza, paisaia, eraiki zuten ondarea...

Egia da, alde batetik, Foru Aldundiak duela jardunaldi horiek sustatu eta koordinatzeko ardura, baina, beste alde batetik, egitasmo hau ez zen gauzatuko urtez urte ekimen honekin bat egin duten hainbat udal, enpresa eta bestelako erakundek gogoz esku hartu ez balute. Zalantza barik, jardunaldien arrakastaren zati handi bat erakundeen arteko elkarlan horri zor zaio, eta zalantzarik ez da ere, datozen urteetan elkarlana are zabalagoa izango dela.

Beraz, ez da besterik geratzen bizkaitarrei gonbita egitea baino, ospakizun handi honetan parte hartu eta gure ohiko ingurunean alderdi berriak ezagutu ditzaten. Bizkaitarren interesa eta gogo bizia dira, ezbaierik gabe, ekimen honen benetako indarra.

6, 7, 8 / 13, 14, 15 de octubre

Europa, un patrimonio común

Por sexto año consecutivo Bizkaia se suma a la gran celebración que constituyen las Jornadas Europeas del Patrimonio. Durante unos pocos días, vizcaínos y europeos tendremos una oportunidad única de disfrutar de nuestro rico patrimonio monumental; una herencia cultural muy diversa, pero que a la vez nos pertenece a todos.

Desde que en 1991, iniciaran su andadura, un número creciente de estados se han ido incorporando a este programa. En la pasada edición 48 estados han tomado parte, generando actividades que han sido disfrutadas por más de 20 millones de personas.

Como en ediciones pasadas, en Bizkaia, un tema específico pretende atraer la atención del público hacia un aspecto relevante de nuestro patrimonio. El lema **Los paisajes del hierro** es el eje temático de una serie de actividades orientadas a recuperar la memoria de algo tan profundamente ligado a la historia de nuestro territorio como es el mineral de hierro, desde una perspectiva múltiple: la minería, el paisaje, el patrimonio construido...

Si bien es cierto que la promoción y coordinación de estas Jornadas corre a cargo de la Diputación Foral, este programa no habría visto la luz sin la participación y entusiasmo de numerosos ayuntamientos, empresas y otras entidades que año tras año se han venido sumando a la iniciativa. Sin duda, buena parte del éxito es fruto de esta colaboración interinstitucional, que sin duda se extenderá aún más en años próximos.

No queda más que invitar a toda la ciudadanía vizcaína a participar de esta gran celebración, animarles a conocer aspectos nuevos de su entorno habitual. Su interés y su entusiasmo son, sin lugar a dudas, el auténtico motor de esta iniciativa.

Belen Greaves

Kulturako Foru Diputatua • Diputada Foral de Cultura